

Año IV. urtea

136 - 2023

Uztaila-abendua

Julio-diciembre



# FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

---

**Gatazka armatua  
eta genero gatazka  
bidegurutzean. Jokin  
Muñozen narratiba  
begirada feminista batetik**

Amaia Serrano Mariezkurrena

---

# Sumario / Aurkibidea

## Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta

Año LV. urtea - N.º 136. zk. - 2023

Uztaila-abendua / Julio-diciembre

### ARTIKULUAK / ARTÍCULOS / ARTICLES

- Engileen eta arazleen sintaxia jite adjektiboen argitan**  
Ane Berro Urrizelki, Leire Sánchez-Dorronsoro 287
- 
- Hizkuntzekiko Irakaskuntza Sentsiblearen gaineko usteak: EAEko LHko irakaslegaien iritziak aztergai**  
Artzai Gaspar, Oihane Galdos, Eider Saragueta, Karin van der Worp, Leire Ituiño-Aguirre 321
- 
- William Wordsworth's *Sonnets Dedicated to Liberty*: the poems about Basque mountaineers**  
Haritz Monreal Zarraonandia 347
- 
- Gatazka armatua eta genero gatazka bidegurutzean. Jokin Muñozen narratiba begirada feminista batetik**  
Amaia Serrano Mariezkurrena 371
- 
- La notación de onomástica no latina en la documentación legerense: aspectos sociolingüísticos**  
Guadalupe Lopetegui Semperena 397
- 
- Euskal komiki-liburuak. Goranzko joera baten azterketa**  
Naroa Zubillaga Gomez 421
- 
- Kultura zinematografiko bat sortzeko bide luzea: XX. mendeko euskal idazleak zinemaren aitzinean (1910-1980)**  
Josu Martinez Martinez 437
- 
- Hizkuntza-ideologiak. Euskararen biziberritzean eragiteko analisi-tresna**  
Miren Artetxe Sarasola 457
-

# Sumario / Aurkibidea

VARIA

<b>La mano de Irulegi: reflexiones desde la paleohispanística y la vascoología [Dosier]</b> Joaquín Gorrochategui, Ekaitz Santazilia (eds.)	485
<b>La mano de Irulegi: edición y comentarios epigráficos y lingüísticos</b> Joaquín Gorrochategui, Javier Velaza	491
<b>Una mano cortada</b> Francisco Beltrán Lloris	503
<b>La inscripción vascónica de la mano de Irulegi desde la perspectiva ibérica</b> Joan Ferrer i Jané	515
<b>Observaciones sobre la inscripción de la mano de bronce de Irulegi</b> Eduardo Orduña Aznar	539
<b>Un enigma envuelto en un misterio: la interpretación lingüística de la mano de Irulegi</b> Iván Igartua	551
<b>Sobre la lengua de la mano de Irulegi: apuntes y conjeturas</b> Eneko Zuloaga, Borja Ariztimuño	565
<b>An assessment of the Basque Interpretation Hypothesis on the inscription contained in the hand of Irulegi</b> Julen Manterola, Céline Mounole	583
<b>Zorioneko y zorion: lo que nos dice de ellos la historia de la lengua vasca</b> Joseba A. Lakarra	597
<b>¿Es la lengua de la mano de Irulegi la antecesora <i>directa</i> del euskera histórico?</b> Mikel Martínez-Areta	617
<b>Idazlanak aurkezteko arauak / Normas para la presentación de originales / Rules for the submission of originals</b>	639

# Gatazka armatua eta genero gatazka bidegurutzean. Jokin Muñozen narratiba begirada feminista batetik

---

Entre el conflicto armado y el conflicto de género. Una mirada feminista a la narrativa de Jokin Muñoz

---

Between armed conflict and gender conflict. A feminist approach to the narrative of Jokin Muñoz

Amaia Serrano Mariezkurrena  
Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU  
amaia.serrano@ehu.eus  
<https://orcid.org/0000-0001-5336-6311>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv136.4>

Eskerrik asko Ibai Atutxari eta Iratxe Retolazari, artikulu honen lehen bertsioetan egindako oharrengatik, baita Haizea Barcenillari eta Ibon Egañari ere, lanaren azkenurreko bertsioa irakurri eta iruzkinak egiteagatik. Lan hau UPV/EHUko «Gorputza, egiletasuna eta generoa euskal kultur sorkuntzan (US21/17)» proiektuaren barruan kokatzen da.

Jasotze data: 2023/03/23. Behin-behineko onartze data: 2023/05/07. Behin betiko onartze data: 2023/09/25.

## LABURPENA

Jokin Muñozen narratiban gai nagusia izan da euskal gatazka armatuarena. Euskal literatur sisteman bere obra kanonikotzat hartu izan da, eta horregatik, lan honetan haren obrak berrirakurri ditugu, gatazka armatuaren irudikapena literatur kritika feministaren bidez aztertzeko. Eraitzen arabera, Muñozen obran indarkeriaren erabilerrari egotzi izan zaizkion genero-arauak iraunarazten dira, militantzia eredu patriarkala erreproduzitzen da, maskulinitate hegemonikoa da nagusi eta ideologia transmisio generizatua irudikatzen da. Areago, narrazioaren batean berariaz begirada feministaz baliatzen denean, talde armatuarenari buruzko kritika are gordinagoa egiteko dela iruditzen zaigu.

**Gako hitzak:** Jokin Muñoz; euskal nobela; gatazka armatua; Genero Ikerketak; Kritika Literario Feminista.

## RESUMEN

El tema principal de la narrativa de Jokin Muñoz es el conflicto vasco. Su obra es considerada canónica en el sistema literario vasco, y por ello, hemos hecho una relectura de la misma desde la crítica literaria feminista con el objetivo de analizar la representación del conflicto armado. Según los resultados, en la obra de Muñoz se perpetúan las normas de género que se le atribuyen al uso de la violencia, se reproduce el modelo patriarcal de la militancia, predomina la masculinidad hegemónica y se representa una transmisión generizada de la ideología. Además, cuando se recurre intencionadamente a una mirada feminista, lo hace con el propósito de hacer una crítica aún más cruda del grupo armado.

**Palabras clave:** Jokin Muñoz; novela vasca; conflicto armado; Estudios de Género; Crítica Literaria Feminista.

## ABSTRACT

The main theme of Jokin Muñoz's narrative is the Basque conflict. His work is canonical in the Basque literary system, and for this reason, we have attempted a new reading from the perspective of feminist literary criticism, with the aim of analysing the representation of the armed conflict. According to the results, Muñoz's work perpetuates the gender norms attributed to the use of violence, it reproduces the patriarchal model of militancy, it predominantly shows a hegemonic masculinity, and it represents a gendered transmission of ideology. Moreover, it seems to us that, when he intentionally resorts to a feminist perspective, he does so with the intent to make an even harsher critique of the armed group.

**Keywords:** Jokin Muñoz; Basque novel; Basque conflict; Gender Studies; Feminist Literary Criticism.

1. SARRERA. 2. GATAZKAREN GENERO IRAKURKETAK. 2.1. Maskulinitate hegemonikoak indarkeriaren aurrean. 2.2. Aita-seme genealogia ideologikoa. 2.3. Ama-semeen arteko talkak. 3. ONDORIOAK. 4. ERREFERENTZIAK.

## 1. SARRERA

Euskal literaturak gatazka armatuari heldu ote dion eztabaida aspaldikoa da, nahiz eta Fernando Aramburuk *Patria* (2016) eleberria argitaratu ostean egindako baieztapenek berpiztu zuten. Bazirudien eleberri horrek euskal eleberrigintzak lortu ez zuen errelatoa eskaintzen zuela, eta, beraz, euskal gatazka armatuari buruzko *eleberri* bilakatu zela. Haatik, euskal irakurleak ongi dakien bezala, usteak erdia ustel du. Izan ere, Ramon Saizarbitoriaren *Ehun metro* (1976) nobela ezarri izan da gaiari buruzko euskal eleberrigintzaren mugari (Arroita, 2015, 23. or.; Barandiaran, 2010, 858. or.), eta 1990eko hamarkadan gogoz heldu zioten euskal idazleek gatazkari, posizio ideologiko eta errealitate ezberdinetako diskurtso literario askotarikoak sortuz. Horren erakusgarri dira Mikel Hernandez Abaituaren *Etorriko haiz nirekin* (1991), Bernardo Atxagaren *Gizona bere bakardadean* (1993), Laura Mintegiren *Nerea eta biok* (1997) edo Arantxa Urretabizkaiaren *Koaderno gorria* (1998) lanak, gutxi batzuk aipatzearren. Milurteko berrian are gehiago ugaritu ziren euskal gatazka armatuaz ziharduten eleberriak:

[...] azken hamarkadako narratibari begiratuta [2000-2010], ez dago ukatzerik heldu diotela euskarazko nobelagintzak eta ipuingintzak gaiari; areago, azken urteetan saritu, kanonizatu eta itzuli den euskal narratibaren zati garrantzitsua gatazkaren gaineko literatura da (Jokin Muñoz, Iban Zaldúa, Juanjo Olasagarre edo Itxaro Bordak jasotako sariei erreparatzea aski da horretaz ohartzeko) (Egaña, 2012, 89. or.).

Egia da, ordea, literaturak gaia jorratu ote duen baino, eztabaidaren gakoak haren trataeran datzala, bereziki errealitate politiko konplexu hori literaturara ekartzeko forman. Beraz, arazoa ez da gaiari heldu ote zaion ala ez, baizik eta *nola* irudikatu den

euskal gatazka<sup>1</sup>. Zentzu horretan, euskal literaturaz Ibon Egañaren (2015) ondorengo baieztapenak erakusten du gatazka irudikatzeko moduek lotura zuzena dutela haren irakurketa ideologikoarekin: «Eskematikoki esanda, [1990eko hamarkadan bereziki] ETAre eta abertzaletasunaren kritika fikzio errealistaren eskutik etorri da batez ere; aitzitik, nazio borroka indartu nahi lukeen diskurtsoa parametro errealistetatik kanpo kokatu da, baita nobelatik kanpo ere» (2015, 56. or.). Muñozen eleberrietan eta ipuin bilduman joera hori ikusten da, euskal gatazka eta nazio auzia parametro errealisten arabera kontatzen baitira.

Gatazkaren kontamoldeari dagokionez, gainera, idazle nafar honek bere obra euskal literatur sistemaren indar zentripetoetatik askatu duela esan duenik bada: «Ikuspegi berri baten aurrean gaude, hainbat joera eta jarrera kolokan jarri dituen eta jarriko dituen jarreraren aurrean, alegia» (Barandiaran, 2011, 52. or.). Baita haren ekarpen literarioak lan honen hasieran aipatu dugun eztabaidari heldu eta neurriko erantzuna eman diola pentsatu duenik ere: «Jokin Muñoz dukegu seguruenik euskal literaturak gatazka egoki adierazi ez duela argudiatzen duten idazle euskaldun bakarrenetakoa eta, hain zuzen, bere etsenpluz kontrako adibide positibo bat eman diguna» (Gabilondo, 2013, 67. or.). Idazleak berak esan izan du euskal literaturak gatazka irudikatzeko moduetan asmatu ez duela<sup>2</sup>, eta, Gabilondok esan bezala, horren erantzun bezala uler daitezke haren lan literarioak. Gatazka izan da Muñozentzat literatura egiteko akuilua eta mamia:

Nik uste dut, halere, gatazkarik gabe, tentsiorik gabe ez dagoela literatura ona egiterik. Badago esaten duenik ere gaur egun nobela onak bakar-bakarrik 3. mundutik etor daitezkeela. Noski, esageratzen ari da. Baina nik zera diot: hemen, Euskal Herrian ere, nobelarako, fikziorako aukera itzelak daude. Gure gizartean fikziorako sustrato aparta daukagu, erabili beharrekoa zerbait ezberdinik eskainiko badugu Europako literaturen mapa errepikakor betiberdin honetan (Muñoz, 2006, 94. or.).

Muñozen obrak euskal literaturaren kanonean kokatu dira, eta lan horiek irakurle zabal batengana heldu dira, bereziki sari ugari (Beterri Saria, Kritika Saria eta Euskadi Saria) jaso dituzten bi: *Bizia lo* (2003) eta *Antzararen bidea* (2007). Arrakasta horren erakusgarri dira bi liburu horien inguruan prentsako kritikatik jasotako iruzkin hauek:

1 Joseba Gabilondok (2013) Ipar Irlandako, Estatu Batuetako, Alemaniako eta Espainiako Estatu literaturako zenbait adibideri jarraituz, azaltzen du literatur kritikariek argi uzten dutela gertaera traumatikoak uanean bertan modu errealista baten irudikatzea ezinezkoa izan dela. Euskal kritikari eta idazle batzuk gatazka modu errealistan irudikatu den galdetzen ari diren arren, eztabaidaren muina hori ez dela aipatzen du, eta gatazka termino errealistetan sortzea fantasia bat dela onartuz, oharkabean euskal literatura osoaren existentzia zalantzan jartzen dela adierazten du. Gatazka literaturan objektiboki agertu den galderari ezin omen zaio erantzun, premisa kartesiar horrek ezkutuan bortizkeria eta trauma ezkututzen dituela onartu gabe. Hortaz, haren planteamenduaren arabera, «Eztabaida ez da *baden* ala ez, baizik eta Gatazkek dagoeneko sortu duen bortizkeriaren subjektu traumatizatua euskal literaturak *nola* adierazten duen» (Gabilondo, 2013, 80. or.).

2 Gu ez gatoz guztiz bat baieztapen honekin, hasieran esan bezala, egon izan direlako posizio ezberdinetan kokaturiko gatazkari buruzko diskurtso literarioak, baina beharrezko ikusten dugu idazlearen iritzi hori jasotzea, uste hori izan delako haren narraziogintza guztia markatu duena.

- a) *Bizia lo* ipuin bildumari dagokionez, «[...] berea duen heterodoxiatik beti ere, bateko nahiz besteko diskurtso ofizialetatik urrun [...]» edo «[...] gure ipuingintza-  
ren gailurra dira bilduma honetako narrazioak ere» (Egaña, 2003), «Maisu lana iruditu zait» (Juaristi, 2003), «[...] Muñozek gizakia agertzen du bere biluztasu-  
nean; bere babesgabetasunean. Gizatasuna bizitza ulertzeko lehen konpromisoa delakoan. [...] Aparteko literatura eta gogoeta zorrotza» (Gorrotxategi, 2003), «[...] institutu edo unibertsitateetan derrigorrezko irakurketen zerrendan sartu» (Telleria, 2003), «Ispilu bat izan daiteke askorentzat liburua, beste ikuspuntuak ezagutzeko aukera beste batzuentzat» (Arregi, 2003).
- b) *Antzararen bidea* nobelari dagokionez, «euskal literatura garaikideko mugarri bat» (Sarasola, 2007), «kontzientziak astindu eta aldatzeko egina» (Kortazar, 2008), «Liburu hau, izan ere, narratiboagoa da, deskriptiboagoa baino; eta objektiboagoa, subjektiboagoa baino» (Juaristi, 2008), «[...] Euskal Herriko historiaren iragan berriaz erretratu koloretsua bezain gardena egin digu» (Asurmendi, 2008), «gomuta-lekutzat har dezakegu» (Serrano, 2016).

Bistan denez, euskal kritikan eta akademian oso harrera ona izan dute Muñozen obrek, eta iruzkin gehienetan nabarmentzen da gatazkaren irudikapen deserosoek kontzientzietan eragiteko balio izan dutela. Alabaina, idazle honen narratibari buruzko irakurketek mugak edota hutsuneak dituztela iruditzen zaigu, Muñozen lanetan erreproduzitzen diren hainbat estereotipo ikusezin egin dituztelako. Izan ere, Muñozen narratibaren irakurketa osatuagoaren bila, haren lanak ikuspegi feminista batetik berrirakurri ondoren, gatazkaz eskaintzen duen irudikapena androzentrista eta patriarkala ere badela jabetu gara.

Beste era batera esanda, literatur kritikak (prentsakoak zein akademiakoak) maiz errepikatu diren leku komunak iraurarazi dituela iruditzen zaigu, zeintzuetan kritika-riek *–elkarbizitzaren* diskurtsospean– gatazka jada itxita dagoen prozesu historikotzat edota *terrorista* gaixo dagoen pertsona(ia)tzat hartu izan duten<sup>3</sup> (Atutxa & Retolaza, 2021, 11.-12. or.), eta horregatik, inoiz baino beharrezkoagotzat jotzen dugu literatur obra horietara bueltatu, irakurketa horiek birpentsatu eta bestelako interpretazioak sortzea. Euskal literatur kritikagintzari dagokionez, Ibai Atutxak eta Iratxe Retolazak (2021) aipatzen dute ez dela gatazkari buruzko kritika literario feminista egiteko bide oparorik zabaldu. Aldiz, elkarbizitza ardatz izan duen kritikagintza garatu dela azaltzen dute, eta Muñozen kasuan, bederen, kritikagintzak maiz irakurri izan ditu haren lanak termino horietan, hautu hori txalotuz.

3 Gabilondok (2013) gatazkari buruz egiten duen irakurketa psikoanalistaren arabera, ondorio hau ateratzen du: Espainiako Estatuaren eraketak duen arazo nagusia espainiar esentzia gordetzen ez duten beste nazionalitate, kultura edota etniako kolektiboak direla (euskaldunak, esaterako). Talde eta nazionalismo horiek espainiarren nahia betetzeko trauma bilakatzen dira, izan ere, nazionalismo espainiarraren legeak subjektu jatorrizkoekiko desira erakusten du, eta, jakina denez, lege horiek betetzea ezinbestekoa izango da kastratua ez izateko. Obedientzia horretatik kanpo kokatzen da, ordea, bere traumatik urrunduko duen sintoma: ETA erakundea. Une horretatik aurrera, Espainiako Estatuaren trauma politikoak sintoma horren kontra bideratuko ditu, eta «Ondorioz, ETAr buruzko fantasiatzko diskurtso politiko konplexu bat eratuko du: hiltzaile irrazionalak dira, ez dira gizakiak, eta abar» (Gabilondo, 2013, 46. or.). Diskurtso hori da komunikabideetan eta diskurtso politiko-sozialetan gailenduko dena, eta euskal literatur kritikagintzan ere baliatu izan dena.



Lan honetan, gure asmoa korrante horretatik urruntzea da, eta Muñozen obra Literatur Kritika Feministatik eta Genero Ikerketetatik aztertuta, pertsonaiek osatzen duten gatazkari buruzko unibertso literarioan dauden genero-logika adierazgarriak azaleratzea ez ezik, pertsonaien diskurtsoetatik zein haien arteko harremanetatik ondorioztatzen den gatazkari buruzko genero-imaginarioa ere agerian uztea dugu helburu.

Kontziente gara berrirakurketa honen eta sorkuntza lanen testuinguru historikoa ezberdina dela, eta egungo egoeratik iraganean argitaratutako lanen azterketa egiteak arriskuak izan ditzakeela, baina hain zuzen ere hori gogoan izanda, distantzia historiko hori baliatu nahi izan dugu irakurketa kritiko ezberdin bat egiteko.

Muñozen narratiba ikuspegi feminista batetik irakurtzen hasi ginenean, ikerlan honi ekiteko hipotesi hauek zirriboratu genituen: gatazka armatuaren testuinguruan, pertsonaiek genero-logika batzuei erantzuten zitelako ustea, emakumezko pertsonaiak amatasunetik eraikiak zirela eta orokorrean gatazkaren imaginario patriarkala gogora zekarren diskurtso bat bazelako ideia<sup>4</sup>.

Gatazkaren genero irakurketa hori egiteko, lana hiru atal nagusitan banatu dugu: lehenengo, maskulinitate hegemonikoan dauden ñabardurak azalduko ditugu (§ 2.1.), eta ondoren, gatazka testuinguruan kokatutako familia harremanetan arakatuko dugu, aitaren (§ 2.2.) eta amaren roletan (§ 2.3.) sakonduz; azkenik, ondorioetan, bi ardatzi helduko diegu: ideologia transmisio generizatuaren bilakaera genero literarioen arabera nolakoa izan den azalduko dugu lehendabizi, eta gero pertsonaien irudikapenen bidez sorturiko imaginario horrek atzean izan dezakeen irakurketa propioa azalduko dugu. Analisia gauzatzeko baliatu dugun corpusa eleberri eta narrazio bilduma hauek osatzen dute: *Joan zaretenean* (1997), *Bizia lo* (2003) eta *Antzararen bidea*<sup>5</sup> (2007).

## 2. GATAZKAREN GENERO IRAKURKETAK

Hasteko, kontuan izan behar dugu Muñozen literatur lanetako protagonista gehienak gizonezkoak direla, eta inori ahots narratiborik ematen bazaio, haiei ematen zaiela. Halere, emakumezko pertsonaiak izan badira, eta noiz edo behin fokalizazio bidez ere ematen zaigu haien pentsamenduen berri, baina gehienetan halakoak ez dira emakume

4 Ikerlan honen izenburutik hasita, argi utzi nahi dugu Muñozen obretako gatazkaren planoaz aztertuko dugula. Haatik, azpimarragarria iruditzen zaigu Muñozek narrazioa 1936ko Gerran kokatzen denean, irabazleentzako diskurtso ofizialak mantendu izan duen ideiarekin kontra egiten duela eta genero ikuspegitik ere ekarpenik egiten duela, emakume aktibistak presente eginez (Candi eta Paula, *Antzararen bidea*) eta errepublikazaleen aldeko emakumeei eragindako bortizkeria sistematikoa argiki azaleratuz (Serrano, 2019, 354., 359. or.).

5 Lanean zehar obra literarioen izenburu osoak jarri beharrean batzuetan laburdura hauek erabiliko ditugu: *Joan zaretenean* (JZ), *Bizia lo* (BL) eta *Antzararen bidea* (Antzara). *Atlantidara biajia* nobela ez dugu ikerlan honetarako berariaz aztertu, gatazka armatuaz baino gehiago nazionalismo abertzaleaz baitiardu, nahiz eta behin edo behin aipatuko dugun.

gisa irakurtzen, ezpada ama bezala. Jakina, ama horiek emakume ere badira, baina haien gogoetak aipatutako ikuspegitik planteatzen dira, galdu berri duten semearen aurrean ama bezala egiten duten egoeraren interpretaziotik.

Hori kontuan hartuta, atal honetan indarkeriaren aurrean eraikitzen diren maskulinitatez arituko gara lehenik, eta familia barruko genero-logikak azaleratuko ditugu ondoren. Bigarren azpiatal horretan, oraindik ama ez den baina haurdun dagoen pertsonaia etakide bati buruzko interpretazioa ere egingo dugu, hura izan baitaiteke emakume gisa irakurria den pertsonaia bakarrenetarikoa («Elurraren isila», BL).

## 2.1. Maskulinitate hegemonikoak indarkeriaren aurrean

Muñozen obretan ageri diren gizonezko pertsonaiak maskulinitate hegemonikoaren baitan kokatzen direla erakutsiko dugu, baina horren aurretik beharrezko iritzia diogu horri buruzko ohar pare bat egiteari, gure azalpena hobeto uler dadin. Jokin Azpiazuk (2017) dioen bezala, maskulinitate hegemonikotzat hartu izan den arketipoaren irudiak orokorrean arbuioa sortzen du, eta zaila da gaur egun gizon oldarkor eta desatsegina, indarkeriaren bidez bere nagusigoa erakusten duen hori erreproduzitzea. Halako gizonezkoek egiten duten jazarpena oso antzemangarria da, eta horregatik gaur egun maskulinitate egokiagotzat jotzen dira emakumeak errespetatzen dituzten gizonezko on eta sentiberak. Gizon horiek, baina, ez dute egoeraren kontrola galtzen, eta beraz, jarrera matxistak ezkututzen dituzten eredu maskulino horiek onargarritzat hartzen badira ere, maskulinitate hegemoniko izaten jarraitzen dute:

Probablemente, nos encontremos en estos momentos con una masculinidad hegemónica más cercana al patrón del hombre «bueno y sensible» que «respeta a las mujeres» sin por ello perder el control sobre la situación. Este modelo hace uso extensivo de la imagen del macho *old school* como contramodelo que le permite ocultar el machismo latente en sí. Por lo tanto, es pertinente separar entre lo hegemónico –como patrón social dominante de lo que un hombre debe ser hoy en día– y las conductas generalizadas –que no tienen por qué casar con este modelo hegemónico–. Estamos rodeados a nivel cuantitativo de hombres que encarnan el modelo de hombre-varón-masculino de forma bastante «clásica», pero sin embargo es otro modelo de masculinidad –que en ocasiones identificamos como «nueva masculinidad»– el que marca el camino de lo admisible y deseable (Azpiazu, 2017, 36.-37. or.).

Azalpen hori ezinbestekoa da orain egingo dugun analisirako. Izan ere, Muñozen narratiban gizonezko pertsonaiak aztertzean maskulinitate hegemonikoaren ereduak aurkitzen dugu, nahiz eta baden pertsonaia horien irudikapenean ñabardurarik. Hain zuzen ere, Azpiazuk (2017) azaltzen duen bereizketa horren arabera osatu ditugu maskulinitate hegemonikoaren barruko bi talde: batetik, maskulinitate hegemoniko klasikoaren arketipotik gertuago irudikatzen direnak eta beste alde batetik, maskulinitate hegemonikoan kokatzen badira ere, afektiboago, onberago, iheskorrago eta errukitsua- go irudikatzen direnak (autoerrukia ere erakusten dute). Muñozen literaturan bata zein bestea sistema patriarkalari jarraipena ematen dioten gizonez osatua dago, ez baitute inoiz ere zalantzan jartzen haien posizioa, ez eta gatazkari buruzko irakurketa berririk

proposatzen ere. Dena den, interesgarria egin zaigu maskulinitate hegemonikoaren be-  
reizketa formala kontuan hartzea, iruditzen baitzaigu Muñozek euskal gatazka arma-  
tuaren funtsezko arazoa bere ikuspegitik gatazkaren aurrean jokabide desegokiak izan  
dituzten gizonezkoen bi talde horietara mugatzen duela, eta gaizkiaren kategorizazioa  
ere horren arabera mailakatzen duela: etakideak eta ezker abertzaleko pertsonaiak  
*maskulinitate hegemoniko klasikoaren* arabera eraikiak dira, indarkeriaren erabilera-  
ren bidez nabarmenki arbuigarri; eta erakunde armatuaren kontra ezer egin ez duten  
gizonak, aldiz, *maskulinitate hegemoniko onargarriaren* barruan kokatzen dira<sup>6</sup>.

Lehen taldearen ezaugarriak azaltzeari ekin aurretik, adierazi behar da etakideen  
karakterizazioa beti narratzailearen (edo haren fokalizazioen) edota haien eremu hur-  
bileko pertsonaiak haietaz egiten duten irudikapenen bidez jasotzen dugula, eta, beraz,  
haien pentsamenduetan sakontzeko aukerarik ez dela, ahots narratiborik ez dutelako.  
Horrela, esaterako, Alvaroren bidez imajinatzen dugu Mikel (JZ), eta narratzailearen  
bidez dugu Mikelen berri «Xantilli» narrazioan (BL), edota Jonen eta Mikelen berri  
«Elurraren isila» kontakizunean<sup>7</sup> (BL).

ETAko militante horiez (eta ezker abertzalearen inguruan dabilzan pertsonaia ba-  
tuzue) esaten zaigunaren arabera, maskulinitate hegemonikoaren barruan militante  
ez direnak baino zurrunago irudikatzen dira: koherentzia ideologiko irmoa erakusten  
dute, edozein proiektu indibidualen aurrean konpromiso kolektiboa gailentzen dute,  
bidegabekeriaren aurkako jarrera dute, helburu politikoa lortzeko indarkeriaren erabile-  
rerekiko zalantzarik ez dute agertzen, etab. Protagonistek haien gaztaroa gogoratzen  
dutenean lagun zituztelako edota familiako seme zirelako, etakideak pentsamendu ideo-  
logikoaren arabera jokatzeko dutela azpimarratzen da, baina harremanetan lagunkoi eta  
txeratsu zirela ere erakusten da. Orokorrean gizagaixo gisa irudikatzen dira, indarkeria  
erabiltzearen ondorioak jasan behar dituzten pertsonaiak direlako, atxilotuak izate-  
ko beldurrez, edota bonba bat manipulatzegatik hilda. Alabaina, ekintza armatuaren  
prestaketan edota erailketa gauzatzen ari direla irudikatzean, odoltsu eta hotz ageri  
dira, eta hor bai kokatzen dira maskulinitate hegemoniko klasikoaren irudikapen be-  
tean: jarrera oldarkorra ageri dute, hizkera bortitza, eta indarkeriaren erabilere-  
kiko ziur. Horren adibide argiak ikus ditzakegu *Bizia lo* ipuin bildumako «Xantilli» eta «Elu-  
rraren isila» narrazioetako etakideengan: lehenengoan Aitorren erailketaren kontraste  
bortitzek (Aitorrek Che Guevararen kamiseta darama hil behar duten unean, eta ez  
da argi geratzen salatarioa ote den, horregatik ETAREN jomugan badago ere) eta Mikel  
etakideak bere anaiarekiko duen jarrera zakarrak (Aitorrek anaiarekiko ageri duen mai-  
tasunarekin alderatuz) haren indarkeria eta gogortasuna uzten dute agerian; bigarren  
kontakizunean Mikel komandoburuak Idoiarekiko ageri duen destainak eta erabiltzen  
duen indarkeria sinbolikoak ere maskulinitate hegemoniko klasikoan kokatzen dute:

6 Egia da Muñozen obretan modu orokor batean (euskal) gizarteari egozten zaiola ETAREN kontra egin ez  
izana, baina kritika hori fikzioan gizonezko pertsonaien bidez gorpuzten denean zer maskulinitate motaren  
bidez egiten den azaldu nahi dugu.

7 Hiru narrazioetako pertsonaia etakideak Mikel du izena, eta istorio ezberdinetako pertsonaia ezberdinak  
izanagatik, izenaren erabilera horrek jada adieraz dezake etakideak irudikatzeko eredu bati ere jarraitzen  
diolako ustea.

Jonek apenas egiten zion aurre [Mikeli], neskagatik ez bazen. «Uztak neska bakean behingoagatik!», esan zion behin, arranke batean. Egunak zeramatzan neskaren kontura purrustadaka. Sarritan ikusi zuen gajoa manta azpian dardaraka, hotzak zegoela esan ezinean. Kontua zen ahuldade seinalerik ez erakustea (145.-146. or.).

Gudariaren eta borrokalariaren imajinarioa maskulinizaturik ageri da Muñozen obra guztian, eta emakumezko etakide bakarra agertzean ere, gizonezkoen eredura gerturatu beharko da militante gisa onartua izan dadin. Zuriñe Rodriguezek eta Oihana Etxebarrietak (2016, 28. or.) dioten bezala, etakideen irudikapen horien atzean gatazka armatuetan sortzen diren maskulinitate hegemonikoen indartzea dago, gatazka espazio publikoan gertatzen denez, testuinguru hori «gizontasuna garatzeko eta maskulinitatearen erakustaldia egiteko agertoki sinboliko bihurtuko» baita.

Irudikapen horietatik zertxobait bereiz kokatu ditugu ETAREN egiteko moduak zalan-tzan jartzen dituzten gainerako gizonezko pertsonaiak, eta maskulinitate hegemoniko onargarriztat hartzen dira, haien diskurtsoen edota hartutako erabakien arabera: JZko Alvaro, BLko «Azterketa»-ko Inazio, Unai edota Juanan, adibidez. Gatazka armaturrekiko distantzia bat markatzen dute pertsonaiok, bakoitzak bere modura: bata muga geografikoaren bidez (Alvaro Madrila doa bizitzera), besteek erakundeko militantzia etenaz (Inazio kartzelan dela, *desmarkatu* egiten da eta Iriarte erakundetik ateratzen da) eta azkenak aitarekiko lotura genealogiko-emozionalak apurtuaz (amaren abizena hartzen du Unai eta ez da aita kartzelatik atera behar duten egunean haren bila joaten).

Dena den, ETAtik urrutiratzeko forma horiek guztiek diskurtso patriarkalari erantzuten dioten maskulinitate hegemonikoan kokatzen dira, hainbat arrazoiengatik: haietako inork ez ditu bere barne-gogoetak inorekin partekatzen, eta hori gatazkaren testuinguruan beldurraren ondorio izan daitekeela pentsa badezakegu ere, ez da inoiz sentimendu horren arrastorik ageri narrazioan, bai, ordea, porrotarena. Hausnarke-ta indibidual horietan gatazkaren aurrean egoki erantzun ez izanaren ondorioz behea jo duten gizonezko gisa irudikatzen dira: bizitzan egindako hautuekiko deserosotasunak kudeatzeko eta emozionalki horri irtenbide bat emateko gaitasunik gabe. ETAN sartzeko ausardiarik ez izan, eta orduz geroztik gatazka existentzialetik atera ezinik dabilzan gizonezko pertsonaien jarrera horiek bete-betean egokitzen zaizkio Joseba Zulaikak *ETAREN hautsa* liburuan zikiratze sinbolikoaren bidez azaldutakoari:

Gure belaunaldiko ETAREN politika barrabilen politika izan da. Lehenik eta behin, borroka egin behar zen eta horretarako *potroak* behar ziren. Frankismo denboran «por pelotas» egin behar ziren gauzak. [...] baina ETAN sartzeko behar zirenak ez genituenok, ba horixe, zikiratuak ginen. [...] Ez bazenituen, bada hitz egitera, idaz-tera, euskara irakastera, eta holako ordezko gauzetara saiatzzen zinen. Bai, hauek ere egin beharrekoak ziren, teoriarik behintzat. Egizian, inpotenziaren seinale ziren. ETAK horrela bihurtu zuen nire belaunaldia belaunaldi zikiratu bat (2006, 68.-69. or.).

Euskal nazio eraikuntzaren bidean, orokorrean emakumeek ez dute ETAN sartzeko agindu sinbolikorik jaso izan, eta borroka armatuan parte hartzeak feminitate arauak haustea zekarrela pentsatu izan da; beraz, Zulaikaren azalpenean ikusten den bezala,

gizonezko belaunaldiak soilik hartzen dira gatazka armatuaren oinarritzat. Horregatik, esanguratsua bezain deigarria egiten zaigu Zulaikaren zikiratze sinbolikoaren teoriak Muñozen maskulinitate hegemoniko onargarrian kokatu ditugun pertsonaien jarrera eta pentsamenduarekin guztiz bat etortzea, ondorengo adibidearen bidez argi ikusten den bezala. *Joan zaretenean* nobelan ETAn militatu ez duen mutil gazteen belaunaldia honela definitzen du Alvaro pertsonaiak: autokritika egiteko ezgauza, barnekoia, isila, kezka pertsonalak eta kolektiboak saihesten dituen eta zurrutari emana dena, konpromisoari ihes egiteko modu bakarra alkohola edatea balitz bezala aritu izan dena. Are gehiago, haren ikuspegitik, etakideek gatazkarekiko konpromisoa erakundean sartuta erakusten zuten, baina berak (eta berak bezala, beste lagun batzuek) ihesaren edota axolagabetasunaren bidea hautatu zuen. Alvaroren begiradatik, bere ahultasunaren eta ziurgabetasunaren aurrean, Mikelek (etakideak) koherentzia, kolektibotasuna eta enpatia irudikatzen zituen. Gatazkaren testuinguruan, gizonek agerturiko bi jarrera dikotomiko ageri zaizkigu, eta Alvaro bezalakoen hautua zuzenean dago erlazionatuta Zulaikak azaltzen duen ETAn «Beste» nagusiaren ondorioarekin, ezen haren iritziz, erakunde armatuak berak sortutako aginduaren arabera, bestelako jardunetan aritzea (euskal kulturgintzan, esaterako), ez zen ekintza erabakigarritzat hartzen (2006, 70.-71. or.), eta, beraz, logikoa da Alvarok duen porrot sentipena, bere bidea benetan baliagarri izan ez zelako ustea gailenduz.

Gatazkari iheska aritu ondoren, ordea, Alvarori gatazka etxeraino heltzen zaio, eta ordura arte hura saihestu izana zama bilakatzen zaio. Zulaikak gatazka armatuaz egiten duen irakurketaren bidetik, Alvaro bezalako pertsonaiei maskulinitate hegemoniko klasikoari egotzi izan zaion ausardia falta zaie, eta erruduntasuna, enpatia edota errukia azaleratzen dituzte<sup>8</sup>. Une horretatik aurrera, errukior izatetik bere hautua –ETAn sartu denarekiko konparazioan– errespetagarri izatera pasatzen da: ahots narratiboa duten gizonezko horiek zalantzak dituztenez (nahiz eta sistema patriarkalean maskulinitate hegemonikoan kokatzen diren), indarkeriaren kontra agertzen direnez, ardurak eta erruak partekatzen dituztenez, eta gogoetatsu agertzen direnez, etakideen jarrerekin kontrastean, gizatiarragoak direlako irudia sortzen dutela esan daiteke. Gatazkari aurrez aurre begiratzen dioten unetik aurrera, maskulinitate hegemoniko sentibera eta onbera irudikatzen du Alvarok, erruduntasun horretatik aterabidea bilatzeko saiakeran.

Orobat da adierazgarria *Joan zaretenean* nobelan gizonezkoek gatazkarekiko duten jarrera bikote harremanetarako proiektuen porrotarekin alderatu ahal izatea: Alvarok bi eremuetan duen konpromiso falta nabarmena da, eta mutilak erlazioan agertutako utzikeriagatik eteten du harremana Helena bikotekideak; era berean, Mikelek, talde konpromisoa lehenesteagatik, ezin dio Luperekin (Alvaroren arrebarekin) izan zezakeen harremanari jarraipenik eman:

8 Alvarok belaunaldi berekoen hautu desberdinak barne-bakarrizketaren bidez esplizitatzen ditu, baina lehen ihesaldia amaitu eta jaioterrira bueltatzen ari bada ere, teknika narratiboak erakusten du ez dituela bere hausnarketak inorekin partekatzen. Pentsamendu-zurrumbilo horretako marmarrak ez du jarrera hegemonikoarekin apurtzen, beraz.

Mikel mendetan iraunkortasuna eta leialtasuna sobera estimatu dituen mundu ikuskeraren baten oinordekoa da, ni garaiokin hobeto ezkontzen diren ahuldade eta iraungikortasun neurrigabe baten seme naizen moduan, [...]

Lupe eta zu [Helena], zer bestela, gure elkarren kontrako joera horien biktima baino ez zarete izan (JZ, 35. or.).

Alvarok bikote erlazioan ageri duen agentzia faltak eta erabakimenik ezak oso mendeko irudikatzen daramate. Hori da, hain zuzen, harremanak aurrera egiteko oztoporik handiena, Helenarekiko interesik eta afekturik ez erakustea. Beraz, bikote harremana gatazkaren aurrean izandako jarreraren ispilu bilakatzen zaio (hortik nobelaren izenburua, pertsonaia horiek bere bizitzatik joan direnean hasten baita pertsonaia kontzientziadun bezala arrazoitzen), eta posizio horretatik egiten du gatazkari buruzko hausnarketa. Mikelek ez du ahots narratiborik, eta Alvarok ez dio aipuko gogoeta-ildo horri jarraitzen, haren talde konpromisoa bikotekidearenaren gainetik jarri izana baino ez du adierazten.

Azkenik, bada maskulinitate hegemoniko horietatik kanpo dagoen pertsonaia bat: *Antzararen bidea* nobelako Gigi, maskulinitate ez-heteronormatibotik 1936ko Gerrari edota gatazkari loturiko zenbait diskurtso zalantzan jarri eta euskal nazionalismoaren barruko zenbait mito deseraikitzen dituena. Halaxe azaltzen du Egañak (2012, 79. or.) Gigiren funtzioa: «gertaera lazgarrien aurrean, tragediaren aurrean bufoi-papera jokatzen du. Histrionikoa eta sarkastikoa da filosofia-irakasle hau, diskurtso epiko oro sarkasmoz deseraikitzen duena». Pertsonaiak bere homosexualitatea aitortu ez arren, oso presente dago: «[...] izenarekin hasita pertsonaia gehiegizkoa baita (eta pertsonaia nagusi gay baina ez hain konbentzigarria baino interesgarriagoa). Aspaldian ez dut pertsona marianoagorik topatu euskal literaturan» (Gabilondo, 2010, 178. or.). Identitate heterosexual hegemonikotik kanpo kokatuta egoteak nazio identitatea, eta bereziki gudariaren figura (bai gerrakoa, bai ETAkoa), auzitan jartzeko aukera ematen diola iruditzen zaigu, bere bizitzako esparru gehienetan heteroarautik kanpo egoteak halakoak ere kuestionatzen eraman izan balu bezala. Gatazkaren testuinguruan sortutako etiketak ere zalantzan jartzen ditu:

— Fatxa? Fatxa esan duzu? Hasi gara, ba! Irakasle fatxa! Alkate fatxa! Zuzendari fatxa! Kazetari fatxa! Idazle fatxa! Zinegotzi fatxa! Jubilatutako fatxa! Kokoteraino nago adjektibo horren banalizazioarekin!

— Haren auzokide batek esan zidan...

— Fatxa... —segitu zuen, keinuka—. Zergatik? El Diario Vasco erosten duelako? Mezetara joaten delako? Real Madrilekoa delako? Chopin gustuko duelako, dekadentea halakoa? (Antzara, 95. or.)

Beraz, maskulinitatearen eta gatazka armatuaren bidegurutzan, indarkeriatik zenbat eta gertuago egon, orduan eta maskulinitate hegemoniko zurrunagoa irudikatzen dute pertsonaiek, eta gatazkaren diskurtso abertzalea zalantzan jartzen dutenak, maskulinitate eredu hegemonikoaren barruan egonda ere, irudi atseginagoa ematen dute, gizatiartuagoa.

Gatazka testuinguruan gizonetzko pertsonaien jarrera horietako batzuk familia harremanetan ere errepikatzen dira, baina esparru intimoan bestelako pentsamenduak ere azaleratzen dituzte aitek, hurrengo azpiataletan ikusiko den bezala.

## 2.2. Aita- seme genealogia ideologikoa

Muñozen literaturan bada behin eta berriz ageri den beste ideia bat: frankismotik datorren nazio askapenaren aldeko borrokaren transmisio ideologikoa familia barruan gauzatzen dela, zehazki aita- seme artean, eta hurrengo belaunaldiak zama horrekin bizi behar izan duela. Hori esplizitatzen du JZko Alvarok bere diskurtsoan eta jarauntsi hori azaltzeko teoria psikoanalitikoetara jotzen du, nazioarekiko maitasuna platonikoa dela argudiatuz:

Aurrekoarekin haustea, hortaz, beste inon baino traumatikoagoa izan da gurean. Iraganean izan ditugun amona guztiak uneoro zelatan edukitzea bezalaxe da, begira eta begira modu jasanezin batez. Termino freudianoak erabiliz, ia mende oso bat aita hil gabe iraun duen gaztaroak ikasgaia gehiegi errepikatu du bere kabuz funtzionatu ahal izateko. Horrela ulertzen da taldearekiko atxikimendu hura. Koadrilatik edozein kolektibotara pasatzen da, eta behin itzulezinezko puntura iritsiz gero –hortik aurrera beranduegi da atzera egiteko, [Alvaroren txapitulara iritsitako] gau hartan Mike-len isiluneetan irakurri ahal izan nuenez–, aise hartzen da Herria taldearen luzagarri gisa. Eta badakizu zer gertatzen den uki ezin daitezkeen maitasun platonikoekin; urrunetik idealizatu egiten dira, sublimatu, eta zenbat eta platonikoagoak, orduan eta aztoragarriagoak izan ohi dira.

Emakume bati hankak lehertzeraino aztoragarriak (JZ, 80.-81. or.).

Aipu horretan Alvarok esaten duena beste obra batzuetan errepikatzen den joera bat da (*Atlantidara biagian* eta *Bizia loko* «Isiluneak» zein «Xantilli» narrazioetan, bederen), eta familia barruan semearengan nazio askapenaren aldeko jarrera sustatu izana aitari egozten zaio zehazki, amaren jarrera kontrakoa izanik. Alabaina, ideologia-jarauntsi hori gizonen artean gertatzen den arren, eta batzuetan semeen konpromisoaren aldeko hautua txalotuagatik, aitek indarkeriaren aurkako jarrera dute, hori ezkututzen badute ere:

[Emazteak] behin baino gehiagotan adierazi zion haren kezka semea *Jarrain* sartu zenean, edota institutuko eskola kontseiluan ikasleen ordezkari izendatu zutenean. Berak, baina, ez zuen hura gaizki ikusten, eta halaxe esaten zion emazteari; konpromisoa ondo zegoela, gizarteko eta eskolako arazoan aurreko sentsibiltatea txalotzekoa zela eta beste hamaika kontu. Baina gehiago ere bazegoen, emazteari horretaz inoiz hitz egin ez dion arren. Berak uste zuen semea, ikasle ona izaki, ez zela inoiz ibiliko manifestazioetan poliziarekin harrika, ez zela inoiz arituko autoen atzetik koktelak jaurtitzen eta, –faborez!–, ez zela inoiz kapaz izango autobus bati su emateko (BL, «Isiluneak», 40. or.).

Pasarte horretan ikusten denez, ideologia-transmisio maskulinoak talka egiten du familia barruko edo inguru hurbileko komunikazio faltarekin. Dena den, paradoxi-koa badirudi ere, bi jokabideak loturik daudela esango genuke: belaunaldien arteko

konpromisoaren ideiak iraun badu ere (ez da haria eten), armak hartzea bigarren belaunaldiaren ardura izan da, eta horren aurrean aitek kezka eta harriduraz hartzen dute semeen hautua, nahiz eta sentimendu horiek isilpean mantentzen dituzten. Alegia, semeena da ekintza armatuari ekitearen ardura nagusia, baina haraino heltzeko aitek iraunarazitako zenbait balioren transmisioa behar izan dutela utzi nahi dute agerian narraziook<sup>9</sup>.

Zentzu horretan, aita horiek teoria psikoanalisten arabera, Lacanen Beste Handiaren funtzioa dutela esan daiteke, eta *Atlantidara biakia* eta *Joan zaretenean* nobeletan, Freuden terminoen arabera, semeek aita hiltzeko ausardiarik izan ez dutela<sup>10</sup>. Ideia hori lotuta dago aurretik aipatu dugun Zulaikaren (2006) gatazkari buruzko irakurketarekin, zeinak erakunde armatuak ezarritako arauaren ondorioz, belaunaldi oso baten zikratze sinbolikoaren bidez azaltzen baititu gatazkaren aurrean gizonezkoek egindako bi hautuak: ETAn egotea ala ez. Aztergai ditugun fikziozko lanetako etakideak ez dira haien aitengandik jasotako ideologia eta desirak auzitan jartzeko adina ausart, literalki eta sinbolikoki; eta borroka armatuari ekiteko erabakia inertziaz hartzen dutela iradokitzen da. Hortaz, etakide horiek, Zulaikak gatazkaz egiten duen irakurketaren arabera, erakundeak berak sorturiko «'Beste' nagusiaren autoritatea bereganatuz» aritzen dira, eta haiek ere zikiratuak daude (2006, 71. or.).

Aitzitik, jokabide hori zehatz-mehatz erakusten ez duten bi salbuespen daude: bata, *Bizia* loko «Azterketa» narrazioko Unai, zeinak ez duen kartzelatik aterako den aitaren bidea jarraitzeko asmorik agertzen (eta beraz, aitaren edota ETaren agindurekin apurtzen duen); eta bestea, *Antzararen bideako* Igor, zeinari ez zaion aitarik ezagutzen. Azken kasu horretan, giro politikoa da gaztea borroka armatura bideratzen duena, Egañak esan bezala:

Bi eleberrietan [Jokin Muñozen *Antzararen bidean* eta Carmen Gisasolaren *Gaur zortzi*], baina, gurasoak ez dira ideologiaren transmisio-lana egiten dutenak (aitarik ez dute ezagutzen seme-alaba horiek eta ez dira haren ideologiaren oinordeko), eta gatazka politikotik at kokatzen dute beren burua; aitzitik, semearen eta alabaren heriotzak haien militantzia jartzen die agerian, eta baita beren seme-alaba hilekiko distantzia areagotu ere, haien erabakiak ulertzen ez dituzten neurrian. Nobela horietan seme eta alabaren engaiamendua ez da familiako herentziaren ondorio, ezpada 'giro' eta 'kultura' baten emaitza (Egaña, 2015, 65. or.).

9 Bestelako ideia bat adierazten du Fuente-Camachok (2016, 60. or.), esanez BLko narrazioetan aita-semeen arteko distantziamentuak borrokarako idealen galera irudikatzen duela, liburua idatzi zen unean (2003an argitaratu zen) euskal gizartearen gehiengoak ETaren jardun armatuari zentzurik hartzen ez ziola azalduz. Gure ikuspegitik, baina, aita-semeen arteko erlazioa estua dela adierazten dute aiten gogoetek, eta hori da hain zuzen semeek borroka armatura jauzi egiteko motiboetako bat, amen ikuspegitik. Aitzitik, egoera hori ez da beti gertatzen, «Azterketa» narrazioko Unairen kasuan bezala, non eten hori ageriko egiten den, semearen ikuspegiaren bidez.

10 Jakin badakigu teoria psikoanalisten oinarri teorikoa zeharo misoginoa eta matxista dela, hala ere, egoki iritzi diogu hemen termino horiek erabiltzeari, Muñozek berak narrazioaren batean esplizituki aipatu izan duela kontuan hartuz, irakurketa asmo hori erakusten duela uste dugulako.



### 2.3. Ama-semeen arteko talkak

Muñozen lanetako emakumezko pertsonaiek bikotekide edo ama rola hartzen dute: *Joan zaretenean* eleberriko Helenak; *Antzararen bideako* Lisak eta Amaiak; *Bizia loko* «Xantilli» narrazioko mutil gazteen amak, «Azterketa» narrazioko Mariasunek, «Isiluneak»-eko Juliak<sup>11</sup>, esaterako. Salbuespen bakarra dago, *Bizia lo* ipuin bildumako «Elurraren isila» narrazioan, non emakumezko etakide bat irudikatzen den. Hala ere, esan daiteke ama gisa sortutako pertsonaiak direla nagusi, eta begirada horretatik erai-kiak direnez, hiru funtzio betetzen dituztela: indarkeriaren aurkako jarrera agertzea, batetik; emakume/ama eta etakide izatearen ezintasuna erakustea, bestalde; semeen heriotza-omenaldietan amek izandako nazio iraupenaren sinboloa ukatzea eta ama erredentore bilakatzea, azkenik.

#### 2.3.1. *Ama bakezaleak*

BLko «Xantilli» eta «Isiluneak» narrazioetan nabarmen ikusten den bezala, indarkeriaren kontrako jarrera erakusteko funtzioa dute amek, eta gainera, aitak egiten dituzte semeen erabakien errudun. Horrela indarkeriaren aurrean kulturalki emakumeei egotzitako rolak betetzen dituzte, bakearen eta bizikidetzaren alde, feminitate araurik hautsi gabe eta, era berean, gizonei (kasu honetan aitei) egozten zaie indarkeria irau-naraztearen ardura, bortizkeriarekiko duten jarrera zalantzan jarri gabe. Aldiz, Fuente-Camachoren (2016, 57. or.) ustez, ama horiek eremu pribatuari lotuta ulertu behar dira, eta BLko «Isiluneak» narrazioko amaren rola euskal nazionalismoaren tradizio eta balioak gordetzen dituen etxearen sinboloarekin erlazionatua dago<sup>12</sup>. Gure iritziz, ordea, Juliak hori sinbolizatzen duela defendatzeko argudioak ez daude testu narrati-boan, eta Fuente-Camachoren irakurketak ukatu edo desagerrarazi egiten du amak aita-seme ideologiaren jarraipena eteteko duen rola eta haren funtzio bakezalea.

11 *Bizia lo* narrazio bilduman emakumezko pertsonaia gehienak bikotekide edo ama rolean ageri direla esana zuten Fuente-Camachok (2016), nahiz eta emakumezko horien betekizunak maila sinbolikotik irakurtzen dituen, kategoria horiek funtzio jakin batzuk betetzeko baliatzen direla argudiatuz: «El tercer [«Xantilli»] y cuarto relato [«Azterketa»] el papel de las mujeres se configura partiendo de la función que realizan para el hombre (esposa y madre) y su importancia radicarán en el correcto desempeño de dichas funciones: la reproducción y la preservación de las tradiciones, uniendo el pasado y presente de la nación» (2016, 58. or.). Interpretazio horrek ez gaitu asebetetzen, uste baitugu emakumezkoen rola nazioarekin lotzean pertsonaia horien beste funtzio narratibo batzuk estaltzen direla, eta gainera, testu narratiboetan bertan ere ez da sinbolotzat hartzeko nahikoa keinu ageri. Esaterako, «Azterketa» narrazioan Inaren eta Mariasunen semeak ez du aitaren eredia jarraitu nahi, eta amaren koherentzia ideologikoarekin ere eten egiten du. Beraz, iruditzen zaigu amaren desira hori ageriko egiten ez denez eta semeak gurasoen jarauntsi ideologikoari uko egiten dionez, ez dagoela narrazioan zehar ama-seme arteko genealogia ideologikoa eraikitzeo asmorik. Are gehiago, *Bizia lo* liburuko beste narrazioek erakusten dute amak direla hari hori apurtzea beharrezko ikusten dutenak (ik. ondorengo *Ama bakezaleak* azpiatala).

12 Hori argudiatzeko aipatzen du ama honek ez duela izenik, eta anonimotasun horrekin bere alderdi sinbolikoa nabarmendu nahi dela: «Sin embargo, no sabemos el nombre de la madre de Jon y mujer de Joseba. Es anónima, de ella sólo interesa subrayar su aspecto simbólico, su sufrimiento y la distancia que la separa del mundo de los hombres, relacionado con la actividad política en el ámbito público» (Fuente-Camacho, 2016, 57. or.). Haatik, ama horrek bai jatorrizko bertsioan, bai gaztelaniazko itzulpenean, Julia izena du (behin bakarrik aipatzen bada ere), eta haren bidez *pribatu-publiko* dikotomia nabarmendu baino gehiago, gure ustez, *bakea-indarkeria* binomioa indartu nahi da. Gainera, pribatu-publiko bereizketa ekintza politikoari begira baino gehiago, lanbideari lotuta egiten dela iruditzen zaigu, aitaren bankuko lana maiz errepikatzen baita amarenari erreferentziarik egin gabe.

### 2.3.2. *Emakumealama eta borroka armatua*

Emakume, ama eta etakidea izatearen ezintasuna ere irudikatzen da, zehazki BLko «Elurraren isila» narrazioan, non Idoia ETako komando bateko emakume bakarra den. Ipuin hau bildumako gainerakoekin alderatuta, berezia da, eta argitaletxeak futurista-alegiatzko bezala katalogatu du. Narrazio honetan lehen aldiz ageri da emakumezko etakide bat pertsonaien artean, eta errealismotik urruntze horrek emakumearen eta indarkeriaren arteko loturaren ezinezkotasunaren ideia indartzen du. Are gehiago, irudikatzen den indarkeria egoera hainbesteraino da muturrekoa, ezen amaiera festa-giro batean kokatua izateak surrealismo/distopia kutsua ere ematen dion<sup>13</sup>.

Gainera, narrazioan berriaz nabarmentzen da taldean bere beldurrak erakustea-gatik indarkeria sinbolikoa jasan behar duela emakumeak<sup>14</sup>: gaueko guardiak bikoiztu, borrokarako gai dela erakusteko atentatu zail batean parte hartu, kideen burlak jasan, etab. Hori ez ezik, taldeko onarpena indarkeria parametroen arabera neurtzen dela erakusten zaigu narrazioan, baita neurria gizonezkoek ezartzen dutela ere. Idoiak egin beharreko bigarren atentatu batean, kuartel bateko emakume garbitzaileak bonbaz hil behar ditu, eta ekintza arrakastatsua izatea lortzen duenean bakarrik sentitzen du taldeari ekarpena egin diola: «Idoiak lasaitu ederra hartu zuen berak prestatutako lehergailu hark behar zen unean eztanda egin zuela ikusi zuenean. Ez zuen ezer esan, baina barne-poza eta harrotasun punttua nabari zitzaion» (142. or.). Zentzu horretan, Idoiak aurrera eraman behar dituen ekintzetan eskola bateko andereño bat eta emakume garbitzaileak erail behar ditu, eta lan esparru horiek feminizatuta egoteak berak (irakas-kuntza eta garbiketa) Idoia lan banaketaren genero kontzientziaren kontra ari delako ideia indartzen du. Are gehiago, duintasuna merezi duten lan mota horietan aritzen diren pertsonaiak erailteak ekintzaren krudelkeria areagotzen du. Idoia garbitzaileen gorpuen zatiei begira geratzen dela ere adierazten da narrazioan:

Idoiak lasaitu ederra hartu zuen berak prestatutako lehergailu hark behar zen unean eztanda egin zuela ikusi zuenean. Ez zuen ezer esan, baina barne-poza eta harrotasun punttua nabari zitzaion. Itxaron ere, itxaron zuen emakume haien gorpu lehertuak kamio bazterrean su eta kearen artean antzeman zituen arte. Baten bat oraindik besoa edo hankak mugitzeko gauza bazen ere, gehienak geldi-geldi zeutzan (142. or.).

13 Ibon Egañaren ustez, narrazio honek etorkizuneko egoera ilun, distopiko bat irudika dezake, eta horretarako muturreko indarkeria irudikatzen du Muñozek, ETaren gainbehera/moral-gabetze erabatekoa. Egañaren iritziz, errealitate hori sortzeko emakume biolento bat eraikitzen du, andereñoen eta garbitzaileen kontra egiten duena. Alegia, katastrofe erabatekoa irudikatzeak jotzen du emakume armatuaren irudikapenera, hori irakurleari jasanezina egingo zaiolakoan (komunikazio pertsonala). Gure ustez, emakumea etakide gisa beste narrazio batean ere irudikatu ez izanak eta besteak bezain errealista ez den narrazioan halako pertsonaia bat sortzeak argi uzten du indarkeriaren eta generoaren arteko araua, eta hori da hain zuzen Muñozek baliatzen duena, nola eta ordura arte inoiz hain esplizituki erakutsi ez duen ikuspegi feminista baliatuz.

14 Narrazio honetan narratzailea orojakilea da, eta haren baieztapenen batzuek erakusten dute gizonezko pertsonaiek Idoiarekin dituzten zenbait jarrera desegokiak direla. Horregatik diogu berriaz erakusten dela genero bereizketa hori, esplizitatu egiten duelako, komandoko buruzagiak Idoiarekiko zuen jokabidea baloratzen duenean, esaterako: «Neskarekin, berriz, ez zuen sekula zuzen jokatu» (134. or.).

Idoiaren irudikapen horrek, emakume etakideak indarkeriaren erabileraren feminitate araua hausteaz gain, emakumezkoek gizezkoenak baino gogorragoak diren ekimenetan parte hartu dutelako ideari erantzuten dio. Ikuspegi hori sistema patriarkalak emakumei egotzitako rolekin eta jokabideekin dago erlazonatuta, non emakumeek bizia sortzen duten bitartean, indarkeria gizezkoek lotzen zaien. Hortik abiatzen da emakume odoltsuaren imajinarioa, Zuriñe Rodriguezek (2017, 425. or.) azaldu gisa: «A partir de ahí, se vincula violencia y masculinidad, por un lado, y, por el otro, surge la idea que de que al renunciar a la dación de la vida, las mujeres que optan por la perpetración de la violencia despliegan una violencia mucho más brutal y despiadada que los hombres». Halaber, ikuspegi hori lotuta dago gatazkari buruzko diskurtsoak maskulinizatuta egotearekin, eta kasu honetan Muñozen narratiba maskulinizatua egotearekin ere bai. ETAren historia ikuspegi feministatik aztertu dutenek adierazi bezala, emakumeen ikusgarritasuna arazotsua izan da, eta askotan gizezkoen rolak hartu dituztenean bakarrik izan dira onartuak:

ETA ha sido una organización marcadamente masculina en la que los hombres han tenido el control del poder y donde se han impuesto los que tradicionalmente vienen siendo los valores masculinos: independencia, búsqueda del triunfo, fuerza –que se demuestra recurriendo a la violencia si es necesario– y una clara diferenciación respecto al otro género –que, por ejemplo, impide mostrar los afectos para no ser considerados afeminados–.

Semejante caracterización hace que la presencia de las mujeres sea problemática, de escasa trascendencia y sólo reconocida cuando las mujeres han tomado actitudes tradicionalmente identificadas como masculinas (Alcedo, 1998).

Emakumezko etakidearen onarpen prozesua komandoaren barruko dinamiketan ez ezik, Idoiaren eta Jonen arteko harremanean ere egiten da nabarmen. Bien arteko erlazioa emakumeak gauzatutako ekintza armatu baten ostean hasten da. Idoiari segurtasuna ematen dio ekintza modu arrakastatsuan gauzatu izanak, eta une hori da Jonen lo zakuan sexu bila abiatzen duena. Ekintza armatuaren eta sexu harremanaren arteko loturak erakusten du emakumea desiragarri sentitzeko eta Jonek aintzatetsia izateko neurria dela indarkeria. Izan ere, Jonek komandokidearekiko sentitzen duen harra testuinguruak markatua dela azaltzen digu narratzaileak: «Beste egoera batean ziurrenera ez zuen bere arreta bereganatuko, baina egun haietan konturatu zen behin baino gehiagotan joaten zitzaizkiola begiak neskaren ipurdi aldera», 142. or.). Alabaina, Jonen eta Idoiaren arteko harremanaren ikuspegian bada alderik: Jonek noizean behingo sexu-erlazio gisa ikusten du (aipuan nabaria da Idoia sexualizaturik ageri dela bere begiradapean), eta Idoiak aldiz, maitasun adierazpenak egiten dizkio Joni («[...] biharamunean argia ikusiko ote duen ez dakienaren etsipenarekin. Ia-ia eguna urratzen ari zela lokartu zen, “maite haut, Jon, maite haut...” xuxurlatuz», 142.-143. or.). Horrela, erlazioa ulertzeko Idoiaren modu erromantikoak hura feminitate hegemonikoaren irudikapenarekin lotzera garamatza, eta irudi horrek indarkeriariatzko testuinguruan beste talka bat sortzen du: gatazka testuinguruan ere emakumearen afektua maitasunari lotuta egoteko beharra, gizezkoena sexu-premia batera mugatzen den bitartean.

Sexu-erlazio horietako batean haurdun geratzen da Idoia, eta ez dio inori bere egoera berri ematen. ETak beste ekintza bat gauzatzeko agindua ematen dio Idoia eta Jon bikoteari, eta horretan ari direla hiltzen dituzte biak. Gertaera hori, ordea, oso modu anbiguoan kontatzen da, eta ez da argi geratzen indar (para)polizialek erail dituzten ala beste komandokideren batek<sup>15</sup>. Izan ere, ekintza horren ostean ETak Jon *isiltzeko* asmoa zuela adierazten da, segur aski polizia gertu zeukalako susmoan, eta horrek sortzen du erailtzailearen gaineko zalantza:

Idoiak irrist egin du lurreko likatsarekin, eta luze eroriko zen zikinkeria hartan baldin eta leihoan eserita zegoen gazte bati sorbaldatik heldu izan ez balio [...]. Aurreneko tiroa bizkarrean sentitu du Idoiak, eta erortzean ikusi du nola Joni beste tiro batek burua lehertu dion. Lurrean dago, masaila kubata arrasto baten gainean jarria. Ezpainetaraino iritsi zaio edariaren gozoa. Aurrean Jon begira ari zaio, begiak zabal-zabal, eta burutik darion odol jariora lurreko likatsarekin nahasten hasia. Gora jaso du begirada. Lehengo gaztearen botak ikusten ditu airean. Leihoan eserita segitzen du, eta kanutoa piztera doa. Atzerago Txano Gorritxok Grouchorekin segitzen du adar joka, iji eta aja. Beste kanta bat jarri du Obelixek. Hori ere ezagutzen du. Baina ez du entzuteko apenas astirik izan, tiro egin baitiote buruan bertatik bertara (153. or.).

Idoiaren heriotzak bi irakurketa ahalbidetzen ditu: erakundearen ikuspegitik, haurdun dagoen emakumea arriskutsutzat hartzea, amatasuna ekintza armatuari gailendu-ko zaiolakoan (eta zentzu horretan Yoyesen oihartzunak nabari dira); eta, estatuaren ikuspegitik, ETari jarraipena eman diezaiokeen belaunaldi berria eten beharra.

Emakume etakidearen erailketak bi ezintasun uzten ditu agerian: batetik, Aretxagak (2009, 25. or.) azaltzen duen bezala, testuinguru nazionalistetan heroi, traidore edo martiri ereduak eta ama ereduak bateragarriak ez izatea; bestalde, azken ekintza horren ostean Jon isildua izango zenez, komandoaren ardura Idoiak hartzearen zailtasuna iradokitzea. Postu horretara iristeko ETako emakumeek izan ohi zituzten oztopoak heriotzaren bidez irudikatuta ageri direla uste dugu, jakin badakigu-eta erakundearen ardurazko posizioetara iristeko bidea, emakumeen kasuan, eragozpenez bete egon ohi zela (Dañobeitia, 2021, 68.-73. or.; Rodríguez, 2017). Edozein kasutan, azken interpretazio hori hipotesi batean oinarritu dugu, eta ezin da testuan erantzun ziurrik bilatu. Fuente-Camachok (2016, 58. or.) ere irakurketa horren alde egiten du, nahiz eta analisisa maila sinbolikora eramaten duen, eta Idoiak –haurdunaldiaren bidez– ama rola berresten duela dioen, zeinaren bidez nazioaren balioen jarraipena egin nahi duen: «Idoia, a pesar de tener un papel activo en la acción militar al formar parte de un comando terrorista, con su embarazo, sigue reafirmando el papel de madre, cuyo objetivo es sustentar los valores de la nación mediante la convergencia del amor y el patriotismo». Gure ustez, baina, interpretazio sinboliko hori ezin da testuan baieztatu, eta amatasuna maila

15 Fuente-Camachok (2016, 50. or.), adibidez, polizia izan delako interpretazioaren alde egiten du, amaiera guztiz gardena ez dela adierazten badu ere: «[...] Muñoz escribe de manera cruenta y grotesca los últimos segundos de la vida de Idoia y Jon, quienes son ejecutados en lo que parece una emboscada, pues supuestamente debían matar al dueño de un bar de pueblo durante los carnavales y son ellos quienes reciben los disparos».

sinbolikotik irakurtzeak emakumearen agentzia eta militantzia albo batera uzten ditu. Gainera, interpretazio hori guztiz zuzena ez dela iruditzen zaigu, narrazioan adierazten den bezala, Idoia noizik behingo sexu-erlazio baten ondorioz gelditzen baita haurdun, eta ez borrokaren jarraipen genealogiko bat izatea erabaki duelako.

Idoiaren heriotzaren interpretazioarekin bukatzeko, nabarmendu nahi genuke Muñozen literaturan ageri den emakumezko etakide bakarra amaiera surrealista duen narrazio batean kokatua dela, inauteri betean gertatzen baita Idoiaren eta bikotekidearen heriotza, taberna baten barruko jai giroan, eta horrek emakumea (eta etorkizuneko ama) etakide izateko ezintasuna iradokitzen du<sup>16</sup>.

Bestalde, Jon ere hiltzen dutenez, mutilaren erailketarekin erakunde barruko maskulinitate eredu klasikoa kritikatu nahi dela uste dugu. Jonek Idoiarekiko nolabaiteko sentimendua ageri du, eta hala esaten dio komandoburuak, burlaizez baina era berean abisu gisa: «Baina orduantxe hasi zen “tira egiten dik, ezta?, gustuko daukak, ezta?” bezalako lelo temosoekin, noiz sarkasmoz, noiz erresuminez, besteak Idoiaren alde egiten zuen bakoitzean» (146. or.). Horrela, Jonek ezaugarri horrek arrazionaltasunetik eta konpromisotik urrundu dezaketenez, mutila ere jomugan egoteak zentzua hartzen du. Azken batean, genero esperientzia horiek militantzia testuinguruan kokatzean, gizon-emakumeen arteko harreman afektiboek eta amatasunak ETA barruan lekurik ez dutela iradokitzen da Jonek eta Idoiaren heriotzaren bidez.

Gure iritziz, erakunde armatuaren barruko dinamika generizatuak berariaz nabarmentzen dira, eta gatazkaren irakurketa ikuspegi feministatik egin nahi izan da narrazio honetan, ETAn jardunaren gaitzespena indartzeko<sup>17</sup>.

### 2.3.3. Nazioaren sinboloaren ukapena eta ama erredentorea

Azkenik, amen rolari dagokionez, semeen heriotza-omenaldietan amek izandako nazio iraupenaren sinboloaren ukapena legoke. Horretarako, *Antzararen bidea* nobelako Lisa hartuko dugu aztergai, haren semearen heriotza-unetik abiatu eta beraren bizitzari buruzko zenbait gako emanez. Aretxagaren (2009) arabera, hileta erritu nazionalistetan, hildako semearen borrokari jarraipena ematen zieten sinbolikoki amek:

16 Esango genuke kontakizunaren oinarri historikoa Tolosako inauterietan gertatutako bi erailketatan datzala: 1983an hildako Joaquina Patricia Llanillo emakume haurdunean eta 1997an tiroz hildako Patxi Arratibelenean. Alabaina, oinarri erreala izatea ez dago itxura surrealista izatearekin kontraesanean, gure ustez.

17 Antzeko ideia aipatzen du Fuente-Camachok (2016, 56.-57. or.): «Cabe la posibilidad de que en estas historias haya una sutil crítica al ideario nacionalista vasco y a la situación provocada por la violencia de ETA, mediante la contrucción de los personajes femeninos y masculinos que forman parte de los relatos». Gure ustez, kritika hori ez zaio euskal nazionalismo osoari egiten, ezker abertzaleari eta bereziki erakunde armatuari baizik. Gainera, Fuente-Camachok baieztapen hori arrazoitzeko erabiltzen dituen argudioekin ere ez gatoz bat, testu nagusian zehar azaldu dugun bezala, emakumezko pertsonaiak askotan maila sinbolikotik irakurtzen dituelako, nazioaren ordain gisa, eta horrek testu narratiboetan justifikaziorik ez izateaz gain, emakume horien funtzio narratiboarekin talka egiten duela ere iruditzen zaigu.

Simbólicamente, ella está más allá de cualquier reproche moral. Estando presente en el ritual y aceptando la muerte de su hijo y su significado, la madre también acepta su vida, dando validez a la lucha por la que su hijo ha muerto. Su presencia transforma la imagen distante del militante clandestino en una más cercana y familiar. [...] La madre, ahora identificada con la categoría supraordinaria de la madre patria, se transforma simbólicamente en la madre de todos los presentes, que se identifican con el hijo militante. La madre no solamente hace posible la identificación del público con el militante muerto, sino que también dota a esa identificación de una gran fuerza emocional, transformando un suceso perturbador –la muerte de un militante– en otro políticamente integrador (Aretxaga, 2009, 28.-29. or.).

Aretxagak (2009) ama horien kokapen ideologikoa zehazten ez badu ere, semearen ideologia partekatzen dutela iradokitzen du. *Antzararen bidea* nobelan, ordea, Igor semearen heriotza-omenaldian Lisak ez du horrela jokatzeko, ez baitu semearen ideologia partekatzen. Horregatik, ama eredu horren sinboloarekin bat egiten ez duela nabarmentu behar da, bi zentzutan.

Batetik, Lisaren ikuspegitik, semea hil izana borroka armatuaren zentzugabekeriaren parametroetan ulertu behar da, eta ez du publikoki dolua erakusteko beharrik sentitzen, Igor ezker abertzalearen diskurtsoan heroi gisa tratatua dela ikusten baitu.

Bestalde, aurreko ideari jarraikiz, hileta-omenaldira doazen Igorren lagunak etakidearekin identifikatzen dira, eta ondorioz, haiek dira Lisari ama eredu horren balioa ematen diotenak. Lisak, ordea, ez du bere burua gudariaren amatzat ikusten. Are gehiago, hasieran ideologiarik ez duen subjektutzat deskribatzen da Lisa, baina semearen gertaerak bere kontzientzia pizten dio eta, ondorioz, gatazka armatuaren kontra azaltzen da. Horregatik, Lisari gaitzesgarria iruditzen zaio agurra politizatu eta publiko bihurtu izana. Badirudi ez dela konturatzen hori guztia semea politizatua izatearen ondorioa dela<sup>18</sup>, eta omenaldi horretan bere burua lekuz kanpo ikusten du: «Ez du ulertzen bere semea hil eta gero antolatu den hileta-omenaldi politikoa... Parafernalia sasi-epiko hori ez da haren benetako drama islatzen duena, ez eta euskal gizartearen drama irudikatzen duena ere» (Barandiaran, 2010, 868. or.). Gure ustez, Lisaren bidez erritu nazionalistetako funtzio hori ez betetzearen atzean idazleak izan zezakeen arrazoia ez da irudi femenino horrek historian zehar izan duen rolaekin puskatzea, ezpada ezker abertzaleari kritika egitea.

Semea hil aurretik eta ondoren ama horrek izandako posizioa ulertzeko, gogoan izan behar da bakarrik eta bakardadean hezi duela semea Lisak, inoren laguntzarik gabe. Igor eta bion bizimodua aurrera ateratzeko lan baldintza prekarioak onartu

18 Testuinguru horretan argi geratzen da Lisa ere politizatua dagoela eta gatazkaren zeharkako biktima dela. Halako pertsonaiak gatazkari buruzko euskal nobelagintzan ohikoak direla azaltzen du Egañak (2015, 59. or.): «Aitzitik, 2000ko urteetatik aurrera ugalduz joan den gatazkaren inguruko nobelagintzan fokua gudaritik biktimara aldatuz joan dela dirudi, salbuespenak badiren arren; hots, indarkeria politikoaren ondorioak zentzu zabalean jasaten dituzten pertsonaiak dira maiz nobeletako protagonistak. Eleberri horiek irudikatutako biktimak, gainera, ez dira indarkeriaren biktima zuzenak sarri, ezpada indarkeria-ekintza horien lekukoak, biktimen senideak, biolentziaren zipriztinak jasotzen dituztenak».

behar izan ditu, oso pertsonaia zaugarri bihurtuz. Lanak xurgatuta izan arren, ez du inoiz langile klaseko kontzientziarik agertu, ez eta gatazkarekiko inolako interesik ere. Semeak sarri esaten dio esplotatua dela, eta bere eskubideen alde altxatu behar duela. Amak, ordea, pragmatikoki, bizitzeko lan egin beharra dela azpimarratzen du narrazioan zehar behin eta berriz, eta semeak lan eginez hilko dela erantzuten. Beraz, lan esplotazioaren inguruko teoria (Igor, semea) eta praktika (Lisa, ama) uztartu ezinak balira bezala planteatzen dituzte bi pertsonaiok. BLko «Elurraren isila» narrazioan gertatu bezala, hemen ere militantziaren kontraesanak kritikatu nahi dira, kasu honetan lan banaketa generizatua baliatuz. Lisak behin baino gehiagotan adierazten du honakoa: «Ni nintzen bere [Igorren] iraultza justifikatzen zuen langileria esplotatua» (92. or.). Borroka armatuan militatzen duen semearen arropak garbitu eta ikasketak eta janaria ordaintzen dizkion amaren bidez, ETAREN eta ezker abertzalearen borroka sozialaren diskurtsoa teorikoa baino ez dela salatu nahi dela iruditzen zaigu. Lan jazarpena bizi izan duen emakumeak bizirauteko modu bakarra hura zuela erakusten du, eta hori haren seme Igorren praktika erosoarekin eta festarako zuen gogoarekin kontrastean jartzen da (askotan ageri da mutila parranda giroan). Hartara, klase kontzientzia izan baina inoiz lan eremuan irudikatzen ez den etakidea militante sozialista koherentearen iruditik urrundu nahi da. Idealizazioaren eta mitifikazioaren bidez, amarekiko zein lagunekiko jarrera aburgesatuaz irudikatzen da Igor, haren kontraesanak agerian utziz. Honelakoak dira amaren ahotik entzuten ditugun baieztapenak:

«Militante eredugarria» zela da hari buruz jakin ahal izan dudana berri bakarra, erakundeak ateratako komunikatu laburrean. [...] Eta berak goizetik gauera *militatzen* zuen bitartean nik goizetik gauera *militante* eredugarriaren arropak garbitu, *militante* eredugarriaren janaria erosi, *militante* eredugarriaren ikasketak ordaindu, *militante* eredugarriaren... (93. or.).

Ikuspegi feminista batetik aztertuta, Igorrek amaren lan esparruko esplotazioa kritikatzeko badu ere, zaintza lanek sor dezaketen esplotazio eremuaren kontzientziarik ez duela ikusten dugu, eta horrek militantzaren irudikapen maskulino hegemoniko zurruna indartzen du. Amarekiko tarteka erakusten duen txeraren atzean langileria kontrako jazarpenaren ikuspegia azaleratzen da, eta ez erreproduzio lanak dakartzan ondorioekiko jarrera. Aipuan ikusten denez, amaren egoera tamalgarria ez da hark Igor zaindu beharrezko ondorioetatik planteatzen:

Pena ematen nion, badakizu? Pena izugarria. Gaueko txandatik itzultzen nintzenean, batzuetan esna aurkitzen nuen [Igor], nire zain, gaupasa eginda. Opilak ekartzen zituenean etxe ondoko gozotegi batetik, eta «eseri ama; tori, ama; zu ez jaiki, ama...», esaten zidan, jada erretoliarik eman gabe. Ez didan salako sofa gainean etzaten uzten, eta tabakoa ezkututzen zidan. Zuzen-zuzen ohera laguntzen ninduen (92. or.).

Semeari kosta egiten zaio ulertzea ama sistema patriarkal neoliberallean biktima izanik hori iraultzeko urratsik ez ematea (haurdun zela, aitak etxetik egotzi eta orduraz geroztik zaintza- eta garbiketa-lanak eginda biziraun baitu). Alabaina, Igorrek langile kontzientzia erakutsiz, amari bizitzaren alde borrokatzeko eskatu bitartean, erakunde

armatuan zegoela jakiteak ezustean harrapatzen du Lisa, bere bizia galtzeko ez ezik, bestelako pentsamoldea izateagatik norbaiti bizia kentzeko prest ere badagoelako Igor. Semearen heriotzaren ondorioz eskuratzen du Lisak kontzientzia politiko-ideologikoa, baina posizio hori erruduntasun sentimendutik abiatuta hartzen du: semea ETAn sartu izanaren arrazoia ezagutu nahi du, nahiz eta bilaketa antzu bihurtzen zaion, eta saiakerara horretan norabidea aldatzen du, 1936ko Gerrako gazte anarkista baten borrokaren eta heriotzaren zergatia ikertzeari helduz<sup>19</sup>.

Bizitzan aurrera egiteko arrazoi izan den semearen heriotzak trauma sortzen dio Lisari, eta ezin du trauma horren korapiloa askatu, ez baitu onesten Euskal Herri libre eta sozialista lortzeko Igor erakundearen sartu izana.

Lisak, semearen heriotzaren ostean hartutako erabaki eta jarreraren ondoren ere, gizarte patriarkala kolokan jarriko ez duen subjektu zapaldu izaten jarraitzen du, Igorrek alde aurretik esan zion bezala. Ama horren jarrera ulertzea, ordea, hori baino konplexuagoa da. Inguratzen duen errealtateak inoiz lagundu ez dion emakumeak errealtate soziopolitiko patriarkalaren kontra altxatu ez izana bizirauteko modutzat har daiteke, harik eta errealtate hori kraskatu egiten den arte. Orduan loalditik esnatu beharraz jabetzen da eta semearen heriotzaren traumari aurre egin ezinik, ezker abertzalearekiko eta gizartearen jarrera hedonistarekiko kritiko agertzen da<sup>20</sup>. Errutik eta arduratik

19 Bilaketa antzua dela diogu, Igor ETAn sartu izanaren arrazoia aurkitzeko, semearen memoria berreskuratu beharrean, Dion anarkista gaztearena ekartzan duelako gogora (Serrano, 2012, 2019). Horrela, 1936ko Gerraren memoriaren eta euskal gatazkaren memoriaren arteko desoreka sortzen da, eta garai bateko errepublikazaleak (eta haien indarkeria) gogoratzea zilegi bihurtzen den bitartean, ETaren ekintza armatuaren ondorioz hildako etakideak gogoratzea ez da etikoa. Antonio Gómezek (2006, 181. or.) dioenez, ohikoa da 1936ko Gerrari buruzko espainiar eleberrigintzan ere errepublikazaleen indarkeria onargarriztat hartzea, bestelako indarkeriak gaitzesten diren bitartean: eskuindar militarren indarkeria, ETaren indarkeria, Estatuaren indarkeria, auzo marginaletako kale indarkeria, genero indarkeria, etnia eta arraza gutxituen kontrako indarkeria, eta Iraken garatutako estatubatuarren indarkeria. Halaxe dio, zehazki: «Pareciera, de hecho, que las violencias del presente (percibidas como una realidad incómoda e inconsecuente) emergen más como una fuente de problemas que de soluciones, frente a la violencia del pasado que era en sí misma un camino de ascesis colectivo a un *status quo* social y político más adecuado» (Gómez, 2006, 182. or.).

20 Ezker abertzalearen mugimenduan kokatzen diren pertsonaiak irudikatzen moduagatik, pentsamendu propioz ez duen jendartea dela iradokitzen da *Antzararen bidea* nobelan. Horretarako posizio hori duten gazteen karikatūra egiten da, eta heriotza baten ostean tabernara edatera joaten den lagun talde bezala aurkezteaz gain, diskurtso bera errepikatzen duen gazte taldeetat hartzen da. Pitzadurarik gabeko diskurtso monolitiko eta heroikoa buruz ikasi eta errepikatzen duen artaldea balira bezala irudikatzen dira, bere kabuz pentsatzeko eta autokritikarako gaitasunik ez balute bezala. Ezker abertzalea osatzen duten mugimendu, erakunde, talde sozio-politikoak hain zabala izanagatik, *Antzararen bidea* eleberrian ETaren mundua ideologikoki eta errituen bidez goraiatzen duen zirkulura mugatzen da. Irudikapen horretan pertsonaien maskulinitate hegemonikoak eta amen rolerik ez ezik, narratzailearen tonu sarkastikoak eta ironikoak laguntzen dute. Ezker abertzalearen karikatūra ulertzeko gakoak, dena den, hura gatazkaren testuinguru lausoa kokatzean datzala dela uste dugu, irudikapen hori ez baita gatazka armatuaren ekintza jakin batzuetan baino kokatzen. Joera hori aztergai dugun nobelan ez ezik, beste euskal nobela batzuetan ere ohikoa omen da: «*Antzararen bidea*, *Martutene*, *Gaur zortzi* edo Anjel Lertxundiren *Etxeko hautsa* (2011) nobeletan aurrez aurre paratzen dena ez da ETA eta estatuaren arteko talka, ezpada ETaren indarkeriaren eta gatazkarekiko kezkarik ez duen XXI. mendeko euskal gizarte hedonistaren arteko kontrastea. Talka horrek zentzugabe eta anakroniko ikusarazten du ETaren jarduna, ezinbestez» (Egaña, 2015, 60. or.). Gure ustez, gatazkaren testuingururik eza, gaixo dagoen gizartearen irudikapena eta ezker abertzalearen itsutasuna dira batik bat diskurtso antiterroristen oihartzunak dakartzatenak.



askatzeko ahalegin zoroan dabil bueltaka Lisa, *Joan zaretenean* nobelan Alvaro egon den bezala. Biek ala biek sentitzen dute etakideek egindakoarekiko nolabaiteko erantzukizuna, nahiz eta sentimendu hori genero ikuspegitik aztertuta, modu ezberdinean eraiki den: Alvarok bere lagun etakidea babesten du etxean, eta arduraren bat sentitzea erabaki horren ondorioztat har daiteke; Lisaren kasuan, aldiz, amatasunak egiten du Igorren erabakiaren arduradun, ez ekintza edo erabaki jakin batek. Hala, semearen hileta-ospakizunen ostean, beste bide bat hautatzen du Lisak, Igorren erabakiarekiko erruduntasunaren askapentzat har dezakeguna: 1936ko Gerran nafar Erriberako galtzaileen memoria berreskuratzea. Modu horretan, barne bakea lortzen du, aseta geratzen da, eta errepublikazaleen memoriaren berreskuratze hori erruduntasun sentimenduaren erredentziotzat hartzen da. Lisak sentitzen duen ardura hori askatzeko beharrak zerikusi zuzena du lehendik ere euskal literaturan Gabriel Arestik sorturiko ama errudun / ama erredentore irudiarekin:

Gabriel Arestiren poetikan, bestalde, beste ama-eredu bat ere garatzen da, herri-imaginario guztietan hedatu ez dena, baina, geure herri-imaginarioan gerora garrantzia hartu duena: ama erruduna / ama erredentorea. Ama errudun hori komunitatearen ekintzen arduradun bihurtzen da, eta erru kolektiboaren zama egokitzen zaio. Zentzu horretan, erredentzio kolektiboaren subjektu ere bilakatzen da: alegia, seme-alaben ekintzen arduradun / errudun egiten denez, ekintza horien erru-garbitzea ere hari dagokio (Retolaza & Sarriugarte, 2015, 31.-32. or.).

Azkenik, azpimarratu behar da gizarteak aintzat hartzen ez duen bizitza daramala Lisak; alegia, Butlerrek (2009/2010, 41. or.) adierazi bezala, *bizitza merezi duen bizitzarik ez duela*, bizimodu ezegonkorra duelako. Politika publikoek eta gizarteak ez dizkiote bizitza duina izateko oinarrizko baldintzak bermatu inoiz (etxebizitza, janaria eta osasun arreta), eta semearen heriotzak are zaurgarriago bilakatzen du. Jesus eta Gigi dira Lisaren helduleku bakarrak, eta horiek Igor hiltzean agertzen dira. Ez da, gainera, kasualitatea bi-biak heteroarauetatik kanpo eta maskulinitate ez-hegemonikotzat irudikatuak izatea (Jesusen kasuan nobelak aurrera egin ahala ondorioztatzen da hori, keinu iradokitzaileak lehenagotik badaude ere). Gigik euskarri emozionala eta egoera aztertzeke irizpide kritikoak eskaintzen dizkio Lisari, eta Jesus agureak hori ez ezik, lana eta etxebizitza ere ematen dizkio, haren heriotzaren ostean etxea jasoko baitu Lisak herentzian<sup>21</sup>.

21 Lisa eta Jesus bakardadera marjinatuak izan diren bi gorputz haragiztatu dira nobela honetan, eta kontuan hartzen badugu Jesus, errepublikazaleen alde egonagatik, gerratik salbu geratu zela bere osaba lurjabeak Donostiara joateko eta erreketekin batzeko eskatu ziolako, pentsa dezakegu haren Donostiako etxea erregimenarena edo frankistaren batena izango zela. Dena dela, errepublikazaleen memoria berreskuratzeke lanetan aritu ondoren, Jesusen etxe hori eskuratzeak ez dio ideologikoki inolako ezinegonik sortzen Lisari. Horrela erakusten da bizirauteko modu horrek ez dakarrela ezinbestean koherente izan beharra, Jesusi gertatu zitzaion bezala.

### 3. ONDORIOAK

Egin berri dugun analisiaren ondorioak bi ardatzetan banatuko ditugu: lehenengo, genero literarioen arabera, pertsonaien ideologiaren transmisioaren garapena nabarmenduko dugu; bigarrenik, pertsonaien generoaren arabera funtzioek eta militantzia ereduak nolakotasunak Muñozen obratan sortzen duten imajinarioa gogoratuko dugu, eta pertsonaiak nola irudikatzen diren eta zein testuingurutan kokatzen diren ikusita, fikzioaren asmoak zeintzuk izan daitezkeen azalduko dugu.

Lehen ardatzari dagokionez, gatazka armatura lerratu diren semeek jasotako ideologia-transmisioa kronologikoki honela planteatzen da:

- a) *Joan zaretenean* (1997) nobelan gurasoei leporatzen zaie ideologia-transmisioaren errua, eta gatazkaren jarraipena belaunaldien arteko lotura horri egozten zaio, baina ez da pertsonaien genero arteko bereizketarik egiten.
- b) *Atlantidara biajia* (2000) nobela aztertu ez badugu ere, interesgarria da aipatzea ideia horri eusten zaiola, baina zehaztapen bat egiten dela: Ediporen mitora jotzen da, bigarren belaunaldiko mutil gazteei aita hiltzeko ausardiarik eza leporatuz.
- c) *Bizia lo* (2003) ipuin bildumako narrazioetan esplizitatzen da aita-seme arteko delatza gatazkaren transmisioa, eta amak horren kontra ageri dira, nahiko itzalpean bada ere.
- d) *Antzararen bidea* (2007) nobelan ideologia transmisioa badago, baina ez da ez gurasoen ez eta aita-semeen artekoa, ezker abertzalearen giroak ekarritakoa baizik.

Beraz, esan dezakegu genero literarioen arteko ezberdintasuna haxe dela: ipuin bilduman ideologia transmisioa generizatu egiten da, eta gizonezkoak dira familian ideologiaren transmisioa lana egiten dutenak, emakumeak indarkeriaren aurka posizionatzen diren bitartean. Aldiz, eleberrietan, ideologiaren transmisioa aita-seme norabidekoa denik ez da hain nabarmen adierazten, eta amek edo presentzia eskasa dute (JZ) edo semeekiko arrakala ideologikoa ageri dute (Antzara).

Bigarren ardatzari helduz, gizonezkoak etakide edota haien lagun gisa irudikatzen dira, eta guztiak maskulinitate hegemonikoaren barruan kokatzen badira ere, narrazioetan badago haien arteko alderik, indarkeriarekiko duten jarreraren arabera lehenengoak hotz, gogor eta zentzugabe irudikatzen baitira (maskulinitate hegemoniko klasiko eta arbuigarri gisa), bigarrenak zalantzati, arduradun eta errudun sentitzen diren bitartean (maskulinitate hegemoniko sentibera eta onargarri bezala). Gizon eta aita diren kasuan, esan bezala, ideologia abertzalearen transmisioaren ardura egozten zaie, emakumezkoak batez ere ama bakezale eta erredentore gisa irudikatzen diren bitartean. Narrazio batean soilik lotzen zaio emakumea indarkeriari (*Bizia loko* «Elur isila»), baina emakume militante hori heriotzara kondenatuta dago, emakumezko aktibisten existentziak feminitate arauak puskatzen dituelako ideiarekin bat eginez, eta estetikoki ere parametro errealistetatik aldentzen den narrazioa izateak uste hori indartzen du.

Dañobeitiak (2021, 75.-79. or.) bere ikerketan azaldu bezala, 1990eko hamarkadan ezker abertzalearen mugimenduko emakumezkoak genero erregimen jakin bateko hiru eredu betetzen zituzten: batetik, ama edo emazte rolen arabera parte hartze politikoa zutenak zeuden («borrokalaria babesteko eta sostengatzeko lanez» arduratzen zirenak), bestalde, frankismotik zetorren kolektiboaren edota taldearen etxekoandre eta ama eredu sinbolikoa (parte hartze politikoa ukatzen zitzaiena) eta azkenik (kopuruz txikiagoa bazen ere) subjektu politiko gisa aritu zirenak. Azken talde horretako emakumeak oraindik ere bigarren mailako militantetzat jotzen ziren 1990eko hamarkadan, eta emakume izan eta boteretzeko bidean batzuek jarrera maskulinoak hartu zituztela azaltzen du, segur aski partaidetza maskulinoa orokorra zen eremuan ikusgarritasuna lortzeko biderik laburrena hori zelako.

Muñozen narratibaren azterketan Dañobeitiak azalduko joera horien oihartzunak ikusi ditugu, emakume militantea bigarren mailako irudikatu da, eta gehienetan etakidearen ama edo bikotekide gisa irudikatu dira emakumezkoak. Horregatik, Muñozek bere lanetako irudikapenen oinarri historikoa egiazki patriarkala izan dela eta pertsonaien arteko harreman generizatuak zein haien arteko genero arrakala seinalatzen dituela esan daiteke. Alabaina, gure ustez, genero kontzientziaren bat esplizituki ageri denean, asmo nagusia ez da gatazkari begirada feminista batetik kritika egitea, baizik eta gatazkaren aurrean Muñozen ustez desegoki posizionatu direnei kritika egitea, eta pertsonaien arteko genero-logikak eta narratzaileen begirada maskulino eta androzentristak berariaz ageri direla uste dugunean ere ideologia abertzalearen (ETAren eta ezker abertzalearen) irudi are arbuigarriagoa emateko egiten dela dirudi. Batzuetan emakumeei egotzitako rol batzuekin puskatzen badu ere (*Antzararen bidea* nobelako Lisaren bidez, nazioaren sinbolo ama izatearen ideiarekin apurtzen du, esaterako), ama eta emazte posiziotik irakurtzen dute egoera emakumezko pertsonaia gehienek (eta feminitate arauak iraunarazten dituzte), eta maskulinitate hegemonikoan ñabardurak planteatzen dituzten gizonezko pertsonaia izan badiren arren, gatazkarekiko egiten duten hautuaren arabera ezberdin irudikatzen dira: ezker abertzalearen edota erakunde armatuaren eremutik zenbat eta hurbilago egon pertsonaia, orduan eta zurrunagoa izaten da haren irudikapena; eta alderantziz.

#### 4. ERREFERENTZIAK

- Alcedo, M. (1998). Mujeres de ETA: la cuestión del género en la clandestinidad. *La Factoría*, 4. [https://web.archive.org/web/20010303115651fw\\_/http://www.lafactoriaweb.com/articulos/miren4.htm](https://web.archive.org/web/20010303115651fw_/http://www.lafactoriaweb.com/articulos/miren4.htm)
- Aretxaga, B. (2009). La muerte de Yoyes: discursos culturales de género y política en el País Vasco. In E. Garmendia et al. (arg.), *Yoyes desde su ventana* (7.-33. or.). Alberdania.
- Arregi, R. (2003, urriaren 12a). Bizia lo. Jokin Muñoz. *El periódico de Álava*. <https://kritikak.armiarma.eus/?p=909>
- Arroita, I. (2015). *Ramon Saizarbitoriaren nobelagintza memoria ikasketen ikuspegitik* [Doktoro-tesia, UPV/EHU]. ADDI. <https://addi.ehu.es/handle/10810/15964>
- Asurmendi, M. (2008, ekaina). Errealitateari hurbiltzekoa nahiz gure baitakoa lotzekoa. *Irunero*. <https://kritikak.armiarma.eus/?p=4310>

- Atutxa, I. & Retolaza, I. (2021). Gogoeta-leku dantzagarriagoak, gomuta-leku bizigarriagoak. In I. Atutxa & I. Retolaza (arg.), *Indarkeriak dantzatzera behar-zen gaituzte. Gatazka armatuaren irakurketa feministak* (7.-21. or.). UEU.
- Azpiaz, J. (2017). *Masculinidades y feminismo*. Virus.
- Barandiaran, A. (2010). Istorioen gizatasuna euskal literaturan: adibide bat. *Euskera*, 55(2), 853-875.
- Barandiaran, A. (2011). *Gatazka Nafarroako euskal literaturan*. UPV/EHU.
- Butler, J. (2010). *Marcos de guerra. Las vidas lloradas* (B. Moreno, itz.). Paidós. (Jatorrizko lana 2009an argitaratua).
- Dañobeitia, O. (2021). 90eko hamarkadako ezker Abertzaleko emakumeen bizipenak: genero erregimen ezberdinen arteko dantzan. In I. Atutxa & I. Retolaza (arg.), *Indarkeriak dantzatzera behar-zen gaituzte* (45.-102. or.). UEU.
- Egaña, I. (2003, apirilaren 12a). Bost bozeto langarraren gainean. *Egunero*. <https://kritikak.armiarma.eus/?p=765>
- Egaña, I. (2012). Begiradak gatazkaren gainean. In A. Serrano & J. Kortazar (arg.), *Gatazken lorratzak. Euskal arazoaren isla narratiban 1936tik gaurdaino* (65.-91. or.). Utriusque Vasconiae.
- Egaña, I. (2015). Ihesaren fantasia. Azkenaldiko euskal nobela eta indarkeria politikoa. *Jakin*, 209, 53-67.
- Fuente-Camacho, M. (2016). *La violencia terrorista en la narrativa vasca del siglo XXI* [Master amaierako lana, Nebraska-Lincoln Unibertsitatea]. *Modern Languages and Literatures*, 27. <http://digitalcommons.unl.edu/modlangdiss/27>
- Gabilondo, J. (2010). Queer Euzkadi edo Manifestu Marianoa (Sasiko Euskal Herri Burujabe Batentzat). In I. Egaña (arg.), *Desira desordenatuak. Queer irakurketak (euskal) literaturaz* (157.-193. or.). Utriusque Vasconiae.
- Gabilondo, J. (2013). *New York-Martutene. Euskal postnazionalismoaren utopiaz eta globalizazio neoliberalaren krisiaz*. UPV/EHU.
- Gómez, A. (2006). *La guerra persistente. Memoria, violencia y utopía: representaciones contemporáneas de la Guerra Civil española*. Vervuert/Iberoamericana.
- Gorrotxategi, A. (2003, abuztuaren 10a). Bizia lo. *El Diario Vasco*. <https://kritikak.armiarma.eus/?p=849>
- Juaristi, F. (2003, apirilaren 27a). Mundu geurea. *El Diario Vasco*. <https://kritikak.armiarma.eus/?p=776>
- Juaristi, F. (2008, otsailaren 29a). Indarkeria gaur. *El Diario Vasco*. <https://kritikak.armiarma.eus/?p=4214>
- Kortazar, J. (2008, urtarrilaren 28a). Gerra mintzagai. *El País*. <https://kritikak.armiarma.eus/?p=4181>
- Muñoz, J. (2006). Bizia lo. Ohe azpia. In I. Egaña & E. Zelaieta (koord.), *Maldetan sagarrak. Euskal gatazka euskal literaturan* (93.-104. or.). UEU.
- Retolaza, I. & Sarriugarte, D. (2015). Gizontzeko (andretzeko) garaia. *Zaldiarri*, 6. <https://hea.eus/hea/zaldiarri6.pdf>
- Rodríguez, Z. (2017). Motivaciones, ingreso y experiencias participativas de las mujeres en ETA. *Política y Sociedad*, 54(2), 409-429. <https://doi.org/10.5209/POSO.52741>

- Rodriguez, Z. & Etxebarrieta, O. (2016). *Borroka armatua eta kartzelak*. Susa.
- Telleria, N. (2003, urria). Bizia lo. *The balde*. <https://kritikak.armiarma.eus/?p=895>
- Serrano, A. (2012). Jokin Muñozen *Antzararen bidea*: oroitzapenei zabaldutako literatur leiho. In A. Serrano & J. Kortazar (arg.), *Gatazken lorratzak. Euskal arazoaren isla narratiban 1936tik gaurdaino* (123.-162. or.). Utriusque Vasconiae.
- Serrano, A. (2016, urriaren 16a). Memoriaren bidegurutzean. *Argia*. <https://kritikak.armiarma.eus/?p=7025>
- Serrano, A. (2019). *1936ko Gerra euskal nobelagintzan. Memoria ikerketak narratologia kulturalaren ikuspegitik* [Doktore-tesia, UPV/EHU]. ADDI. <http://hdl.handle.net/10810/38590>
- Sarasola, B. (2007, abenduaren 30a). Trilluelosko itsasoak. *Hitz egiteko modu bat* bloga. <https://kritikak.armiarma.eus/?p=4144>
- Zulaika, J. (2006). *ETAren hautsa*. Alberdania.